



## 2. gaia

### Zezenketak: Euskal Herrian ere debekatu?

*2012tik aurrera Katalunian zezenketak debekatzea erabaki du herrialde hartako legebiltzarrak. Herri ekimenaren bidez iritsi zen eztabaida Kataluniako Legebiltzarrerera, sustatzaileek 180.000 herritarren atxikimenduak jasota. Animaliei tratu txarrik ematea zilegi ote den izan da eztabaidaren ardatza. Animalien eskubideen aldeko zenbait taldek ekimena Euskal Herrian ere zabaltzeko asmoa dute.*

#### Egitekoa

Aurreko albistea irakurri ondoren, euskaltegiko aldizkarirako **artikulua** idatzi behar duzu. Bertan, zure iritzia adierazteaz gain, behar beste argudio eman behar dituzu, zure moduan pentsatzen ez duten ikaskideak konbentzitu nahian. Aukeran duzu **aldeko** zein **aurkako** jarrera hartzea. Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

#### Irakurri duzun pasarteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- Zezenketa: artea ala sarraskia?
- Euskal Herriko toki batzuetan, tradizio luzea: Iruñeko San Ferminak, Azpeitiko jaiak, Bilbokoak...
- Zezenketa, zenbaitentzat lanbide eta diru-iturri.
- “Zezenketak gogoko ez dituztenak ez daitezela zezen-plazara joan, eta kitto!”
- Animaliak eta tratu txarrak. Animaliek ere eskubideak dituzte.
- 2005ean Ingalaterran txakurrekin egindako azeri-ehiza debekatu zuten. Gurean, txakur eta oilar borrokak galarazita daude.
- Zezen-plazak gero eta hutsago omen daude.
- Zezenketa: margolari, musikagile eta idazle askoren inspirazio-gaia.

